



## Roj TV

# Kurduen telebista begi-puntuan

Alemaniako Gobernuak Roj TVren emisioa debekatu zuen joan den hilean. “Terrorismo kurduarekin lotura”, argudiatu zuen Berlinek. Jarraian, PKK-k hiru turista alemaniar bahitu zituen Ipar Kurdistanen. Huraxe zen “Alemaniako politika erasokorrari” bere erantzuna. Europako beste hedabide batzuei sartzea galarazi dieten arren –tartean BBCri–, guk Roj TVk Bruselan duen estudioan barneratzea lortu dugu eta hauxe topatu dugu.

Testua eta argazkiak:

**GOIZEKO SEIAK DIRA** Roj TVko estudioan. Aurkezleak eta bere gonbidatuak munduko kurdu guztiak agurtu dituzte: “*Roj bas, Kurdistan*” (Egun on, Kurdistan). Horixe da telebista-kate honen eguneroko lehen programaren izena. Eguraldi aurreikuspena

**KARLOS ZURUTUZA**

pantailan ikusi ondoren, Siriako herri ttipienetik Irango Kermansha hiri erraldoiraino, ikusleen deien txanda ireki da: Mehmet, Diyarbakirretik (Turkia), Txabin, Kamislotik (Siria), Farzan, Sanandajetik (Iran)... Antze-ko mezua dute denek: zorionak Roj TVri,



eta besarkada bat urruti dagoen lagun edo senide horrentzat. Seiak dira oraindik Bruselan, baina jada zazpiak Turkian eta Sirian, eta ordubete beranduago Iranen eta Iraken. Roj TV urruti dago Kurdistanetik.

“Urte ugari eman ditut saio honetako aurkezle, baina berebiziko emozioa sentitzen dut egunero”, dio Hayderrek; Siriako kurdua da bera. “Jende asko urtetan saiatzen da guri deitzen. Garestia da handik deitzea, otordu baten prezioa askotan. Dena den, deika jarraitzen dute goizero, zuzenean sartuko diren itxaropenaz”. Herrixka txiroenatan ere ohikoak dira antena parabolikoak, adobezko etheen artean gorderik. Izan ere, satelite bidezko emisioa da kurdu gehienentzat euren kultura eta gaurkotasuna gerturatzeko modu bakarra.

*Roj Bas Kurdistan* saioa bukatu orduko, albisteetako erredakzio taldea elkartu da mahaiaren inguruan. Albisteeak pisu gehien hartzen dute emankizunean, eta kurmanjieraz (ipar kurduera), Irak eta Irango dialektot-

etan, turkieraz eta arabieraz eskainitako saio bereziak daude. Hori gutxi ez, eta farsierazko nahiz siriarezko programak ere ekoizten dira bertan. “Mesopotamiako kulturen aho-tsa” du leloa telebista-kate honek. Egia izan ala ez, ezin ukatu euren ahalegina.

Gaurko gai nagusia alemaniar turisten bahiketa da, Ararat mendiaren inguruan. PKK talde armatuak bere gain hartu du ekintza, “Alemaniako Gobernuak kurduen kontra bideratutako politikari erantzuna emanetz”. Joan zen ekainean, Berlinek Roj TV “terrorismoaren laguntzaitzat” jo eta katearen jardura oro debekatu zituen. Erabakia, hain zuzen, Alemania eta Turkia futbol selekzioak lehiatu ziren egun berean hartu zen: kasualitatea ala ironia hutsa?

Neurri gogorak zur eta lur utzi zituen herrialde hartan bizi diren ia 800.000 kurduak. Albistegietako aurkezleetako bat den Turgutek garbi du honen atzean zer dagoen:

“Turkia merkatu erraldoia da Alemaniarentzat. Interes asko dago jokoan”.



Ezker-eskuin eta goitik behera: Berfin, Kultura saileko arduraduna; Yves makillatzailea eta Hajer aurkezlea; eta Sores, dokumental egilea.

### Bakarrak munduan

Albiste eleanitzak baino askoz ere gehiago eskaintzen du Roj TVk. Nusaybingo (Turkia) kurdua da Berfin, kultura ataleko arduradunetako bat. Hego Kurdistandik (Iraketik) etorri berria da, hango herri eta hirietako bizimoduaren inguruan dokumentala egin ondoren. “Telebista gure hezkuntzarako ezinbesteko tresna da, gure eskubidea”, dio neska gazte honek alemanera bikainean. “Oraindik Turkian bizi nintzela ez nekien Siria, Iran edota Iraken ere kurduak zeudenik, edota islama ez den beste erlijio batzuk ere praktikatzaren direnik gurean. Edo nirea ez zen kurduerazko beste dialekto batzuk zeudenik... Gure herria ez dugun arren, 40 milioi pertsonen osatutako taldea gara. Telebista kultura transmititzeko tresna bikaina izan daiteke. Ezin duzu herri oso bat telebistarik gabe utzi. Erabat antidemokratikoa da”.



Gaurkotasunaz eta kulturaz gain, giza eskubideen urraketa salatzea da Roj TVren beste lehentasunetako bat. Berfinek joan den martxoko irudi batzuk atera ditu artxibotik. Nekez mantendu daiteke begirada pantailan, hain dira gogorak hautatutako irudiak. Aurtengo Newrozeko (kurduen urte berria) ospakizunetan hartutakoak dira, Van hirian, zehazki. Turkiar polizia batek ume bat dauka besotik helduta. Halako batean besoa hautsi dio, goranzko mugimendu bortitz batez (irudiak <http://ttiki.com/355> helbidean ikus daitezke).

“Guk baino ez ditugu irudi hauek zabaldu. Eta honen moduko hamaika gehiago daude, tamalez. Gugatik ez balitz, inork ez luke honen berririk izango”, kexu da Berfin, hase-rre, baina irudi basatiak sortutako emozioa ezkutatu ezinik.

Roj TVko langile gehienak bezala, Berfin Brusela kanpoaldeko Denderleew herri txikian bizi da. “Oso komunitate estua gara: elkarrekin bizi gara, elkarrekin egiten dugula... Askotan ahaztu egiten zait etxetik hain urrun gaudela!”.

Bizitza eta lana elkarrekin egin ez ezik, batera ere bazkaltzen dute denek hemen. Ordu batetan, ilara luzea antolatzen da egunero jantokian. Menua nahiko mende-baldarra den arren, kurduen garbantzua zopa, ardi gazta eta olibak beti daude aukeran.

Bahitutako hiru turistek otorduko solasaldia ere bereganatu dute gaur. Kurduera entzuten da gehien, horixe baita bertako *lingua franca*.

Iran edo Irakeko kurduen artean howramaniera eta soraniera ere entzun daitezke, iparreko kurduak apenas ulertzen dituzten dialektoak. Eta paradoxa bada ere, turkieraz egiten dute askok hemen. Euren hizkuntzan hitz egiteko debekua batetik, eta urtetako erbestea bestetik, ugari dira turkieraz hobe mintzo direnak kurdueraz baino. Bazkalostea tearen inguruan egiten da, jakina. Jarraian, bakoitza bere postura bueltatzen da.

Yves ez da bazkaltzera joan txanda honetan. Mutil valoniar hau bertako makillatzailea da eta Hajer aurkezlea prestatzen ari da buru-belarri. 29 urteko emakumea da Hajer eta turkieraz albisteak irakurtzen ditu egunero. Yvesek bere begiei arreta eskaini bitartean, neskaren iritzia

entzun dugu Alemaniak hartutako erabakiaren inguruan: “Herri bat onartzen ez duzunean, harekin hitz egin nahi ez duzunean, ez duzu bere ahotsa entzun nahi. Gu kurduen ahotsa gara, horregatik isilarazi nahi gaituzte”, esan du Hajerrek, begiak ireki gabe.

Hajer Dersim herrian jaio zen, Ipar Kurdistanen (Turkia). Ankarak bereziki zigortu zuen eskualde hura 80 eta 90eko hamarkadetan. Gauzak honela, Dersimek errefuxiatu asko “esportatu” ditu, eta ugaririk dira Rojen ere handik iritsitakoak.

### Mendi txangoak

Goiko solairuan Sores topatu dugu. Bostekoa luzatu eta bere izenak “iraultza” esan nahi duela jakinarazi digu segituan. Alemanian jaioa da, baina aita kurdua eta ama armeniarra ditu. “Elizan eman nuen denbora gehien txikitan”, aitortu du kazetariak umoretsu. Agian Kurdistandik

“Telebista kultura transmititzeko tresna bikaina izan daiteke. Ezin duzu herri oso bat telebistarik gabe utzi. Antidemokratikoa da”

BERFIN, ROJ TV

## Hedabide kurduak, 100 urteko garaipen eta jazarpenak

Lehen egunkari kurdua Egipton plazaratu zen 1898an eta *Kurdistan* zuen izena. Jarraian beste egunkari eta aldizkari gehiago etorri ziren: *Sark* (1908), *Amid Sevda* eta *Peyman* (1909), *Yekbun* (1913), *Irfan* (1923)...

Baina hedabide kurduak egoera geopolitikoaren biktima izan ziren berehala. 1923an, Turkia, Siria, Irak eta Iranen artean zatitu zen Kurdistan eta kurduen argitalpen guztiak debekatu zituzten. Errepresioa itzela zen arren, hedabideak ez ziren inoiz desagertu. 1932an *Hawar* izeneko egunkaria sortu zen Damaskon, alfabeto kurdu modernoari sekulako bultzada emanaz. Geroxeago *Galawej* sortu zen Mahabaden (Iran), eta *Nistiman* 1943an.

XX. mendearen erdialdean lehen irrati kurduak sortu ziren Iraken, Armenian eta Iranen. Yerevango (Armenia) irratiaren garrantzi historiko handikoa da kurduentzat.

1990ean Kurdistango eta diasporako egunkari eta aldizkariak 800 baino gehiago ziren. Hamarkada berean, kurduak internet eta telebistaren munduan sartu ziren. Egun zortzi dira satellite bidez emititzen duten telebista-kate kurduak.

1999an Londresen egoitza zuen MED TVk emititzeko baimena galdu zuenean, MEDYA TV sortu zen Belgikan. 2004an Frantziako auzitegi gorenak "PKKrekin lotura izatea" leporatu zion azken horri, eta urte bereko martxoaren lehenean Roj TV sortu zen.

Roj TVk Danimarkatik emititzen du Hotbird satellite bidez, baina produkzioa Belgikan egiten da, erreportaje honetan deskribatutako tokian, hain justu.

Joan den ekainean, Alemaniako Gobernuak kate honen emisioa debekatu eta Wupertalen zuten egoitza itxiarazi zuen.

hain urruti jaio izanak etengabe bidaiatzeko grina sorrarazi dio. Dioenez, urtero bizpahiru hilabete ematen ditu kanpoan, gerlari buruzko ikus-entzunezko erreportajeak egiten. PKK-k Hego Kurdistanen (Iraken) dituen mendiko kanpamentuetara joaten da horretarako.

"Gerlari bakoitzak bere historia dauka eta ni horien bila noa beti", dio Soresek, atzeko partan Che Guevararen posterra duela.

"Kurduak ez ezik, beste herri askotako gerlariak daude PKK-n: indonesiarrak, errusiarrak, greziarrak... Baita turkiarrak ere! Mendietako bizitza gogorra bezain interesgarria da. Gerlari bakoitzaren motibazio eta bizipenak jaso nahi izaten ditut nire erreportajeetan: zerk bultzatzen du honelako erabakia? Nolako da bizitza mendietan?"

Bidaia anitzen poderioz, harreman estuak sortu dira Sores eta berak elkarrizketatutako hainbat gerlariren artean. "Menditik bueltan familiengana joaten naiz beti. Pozarren hartzen dituzte euren seme-alabek kanpamentuetan idatzitako gutunak. Tamalez, aldi behin albiste txarrak ematea ere egokitzen zait; senideren bat larriki zauritu edo zendu dela... Oso gogorra

da hori", dio, bere azken dokumentala muntatzeko ari dela: *Gerlari elbarrien egunerokoa*.

Bidaia horien guztien oroigarri dira Roj TVko egoitzan agerian dauden argazkiak. Makina bat irudi topa daitezke pasilloetako paretetan, bizimodu gogor horren isla: emakume gerlariak —te katilua esku batean eta fusila bestean—, negurako egurra mozten, kanpamentuetako eskoletan ikasten, Kandil mendietako gailur elurtuak igotzen... Telebista arrunt baten egunerokoarekin zerikusirik ez duten irudiak denak.

Soresek badaki berak egindako lana katea legez kanpo uzteko aitzakiatzat har litekeela. Nolanahi, ez omen da bera honelako erreportajeak egiten dituen bakarra: "*Washington Post*, *Le Monde*, *El País* edo *Der Spiegel*-eko kazetari ugari ezagutu ditut nire txangoetan. Askotan batera joan gara denok, PKK-k gonbidatuta. Legez kanpo utziko dituzte horiek denak ere?", galdetu dio Soresek bere buruari, irribarrea galdu gabe. ■

[www.argia.com/kurdistan](http://www.argia.com/kurdistan)

kanalean, erreportajearen diaporama.

**Artezblai ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK**

FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak  
8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren ziaboga  
Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo  
[www.libreriyorick.com](http://www.libreriyorick.com) eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / [www.libreriyorick.com](http://www.libreriyorick.com) / [info@libreriyorick.com](mailto:info@libreriyorick.com)